

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroa Oinez 2018ko antolatzaileei harrera egin diete gaur Barkos Lehendakariak eta Solana kontseilariak

*Altsasuko Iñigo Aritza Ikastola ari da urriaren 21ean ospatuko den jaia antolatzen*

Asteartea, 2018.eko irailak 18

Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakariak, eta Maria Solana, Hezkuntzako kontseilari eta Gobernuko bozeramaileak, Nafarroa Oinez 2018ko antolatzaileei harrera egin diete gaur goizean. Jaia urriaren 21ean ospatuko da Altsasu / Alsasuako Iñigo Aritza Ikastolan.

Lehendakariak eta kontseilariak lehen eskutik jaso

ahal izan dituzte nafarroako Ikastolen jaiari dagozkion argibideak eta hala bertara joateko gonbidapen formala ere jaso dute.

Nafarroako Jauregian izan den topaketara, Mikel Asiain eta Josu Reparaz, Nafarroako Ikastolen Elkarteko presidente eta zuzendaria, eta Eneida Carreño eta Ibai Iriarte, Iñigo Aritza Ikastolako presidentea eta zuzendaria gerturatu dira.

Iñigo Aritza Ikastolak, 47 urteko ibilidea du, eta hirugarren urtez antolatuko du Nafarroa Oinez. 'Bizi' lemapean, ikastolak eraikina eguneratu eta beren hezkuntza eredua indartzen jarraitzea du helburu.

ARGAZKI OINA: Ezker eskuin: Ibai Iriarte, Iñigo Aritza Ikastolako zuzendaria; Josu Reparaz, Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendaria; Maria Solana hezkuntza kontseilaria eta Nafarroako Gobernuko Bozeramailea; Eneida Carreño Iñigo Aritza Ikastolako presidentea; Uxue Barkos, Nafarroako Lehendakaria eta Mikel Asiain, Nafarroako Ikastolen Elkarteko presidentea.



Uxue Barkos Lehendakaria Nafarroa Oinez 2018ko ordezkariekin.